

LASARTE-ORIAKO UDALAREN ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEKO OSTALARITZAKO ZERBITZUAK, ZAINKETA PERTSONALEN ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUAREN ZERBITZUAK, OSASUN-ZERBITZUAK, ZERBITZU PSIKOSOSIALAK, ERABILTZAILEEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO/ATAKAZARAKO ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOEN MANTENTZIO INTEGRALERAKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAN, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA ETA ADJUDIKAZIOKO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea Lasarte-Oriako Udalaren Atsobakar Zahar-Etxeko ostalaritzako zerbitzuak, zainketa pertsonalen eta banakako arreta pertsonalizatuaren zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, zerbitzu psikosozialak, erabiltzaileen eta familien informazio/atakazarako zerbitzuak eta instalazioen mantentzio integralerako zerbitzuak ematea da, betiere Preskripzio Teknikoen Agiriaren arabera, zeinek kontratu-izaera baitu.

2.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO TRAMITEA, PROZEDURA ETA FORMA.

Kontratuaren tramite arruntean, prozedura irekian, eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren arabera eta adjudikazioko hainbat irizpideren arabera adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuaren 30/2007 Lege urriaren 30ekoak (SPKL) 141.etik 145.era bitarteko artikuluetan eta 134.etik 136.era bitartekoetan xedatzen duenaren arabera.

3.- LIZITAZIOKO OINARRIA EDO TASA.

Lizitazioaren oinarri gisa balioko duen kontratuaren gehieneko prezioa, ostalaritzako zerbitzuei, zainketa pertsonalen eta banakako arreta pertsonalizatuaren zerbitzuei, osasun-zerbitzuei, zerbitzu psikosozialei eta erabiltzaileen eta familien informazio/atakazarako zerbitzuei dagokienez, egunean zazpi mila bostehun eta laurogeita hamairu euro eta bederatzi zentimokoa da (**7.593,09 euro/egun**), BEZa barne.

Prezio hori honela desglosatua geratzen da: balio estimatua 7.096,35 euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga 496,74 euro.

Lizitazioaren oinarri gisa balioko duen kontratuaren gehieneko prezioa, Mantentzio Integraleko Zerbitzuei dagokienez, egunean ehun eta berrogei eta hamabi euro eta zentimo batekoa izango da (**152,01 euro/egun**), BEZa barne.

Prezio hori honela desglosatua geratzen da: balio estimatua 131,04 euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga 20,97 euro.

Eskainiko diren prezioen barruan sartuko dira kontratuaren ondorioz sortuko diren era guztietako tasak, kargak, zergak eta gastuak.

4.- ZERBITZUAREN FINANTZIAZIOA.

Kontratuaren xedeko zerbitzua indarrean dagoen Aurrekontu Orokorreko 1.0701.227.99.313.81.2008 (Zahar-Etxeko Kontratua) kontu-sailaren kargura finantzatuko da, zeinetan kreditu nahikoa baitago kontratua betetzetik Udalari datozkiokeen obligazioei erantzuteko.

Era berean, afektatuak gertatzen diren etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzera konprometitzen da aurrekontuen gaian eskumena duen organoa.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

1.- Kontratuaren iraupena hiru urtekoa ezartzen da, dagokion kontratu administratiboan zerbitzua ematen hasteko finkatua geratzen den egunetik kontatzen hasita, betiere SPKLak 279. artikuluan ezartzen dituen epeak errespetatuz.

2.- Kontratua, hala badagokio, beste urte bateko periodoetan luzatuko da, gehienez ere hiru urtez, betiere alderdiek borondate hori espresuki adierazten badute. Kontratuaren iraupen totala, luzapenak barne, ezingo da sei urtetik gorakoa izan.

3.- Kontratuaren indarraldiko epea eta, kasua hala bada, ondorengo luzapenak ere igarotakoan, automatikoki geratuko da amaitua, eta adjudikatarioak zerbitzua emateari utziko dio. Nolanahi ere, adjudikazioaren xedeko zerbitzua ematen jarraitzera obligatua egongo da, harik eta adjudikatario berria haren kargu egiten den arte, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoz. Inongo kasutan, epe hori ezingo da hiru hilabetetik gorakoa izan.

6.- ZERBITZUAREN ADJUDIKAZIOKO PREZIOA PAGATZEA.

Emandako zerbitzuen fakturazioa hilabeteka egingo da. Abonamendua egin aurretik, kontraturiko enpresak faktura zehaztu bat aurkeztu beharko du, zeinetan adieraziko baitu zein kontzeptugatik egiten duen, bai eta Udalak eskatzen dion beste edozein kontzeptu ere. Prestazioaren konformitatea jasotakoan, faktura ororen pagamendua 30 egunera egingo da, faktura Udaleko Interbentzioko bulegoetan erregistratzen den egunetik kontatzen hasita.

7.- PREZIOEN ERREBISIOA.

1.- Enpresek, eskaintzak aurkezterakoan, kontuan izan beharko dituzte lehenbiziko urtean merkatuko prezioen lehia eta gorabeherak, kalkulatu egin beharko dituzte horren kostuak, eta begiratu egin beharko dira inflazioaren gorakadatik. Horrenbestez, ez da kontenplazten periodo horretan prezioak errebisatzerik.

2.- Zerbitzua ematen hasitako egunetik lehenbiziko urtea igarotakoan, hurrengo urte-sarien prezioak honako formula honen arabera errebisatuko dira:

$$I = KPI + 0,85$$

I = portzentajearen bariazioa.

KPI = errebisioko unean Kontsumoko Prezioen Indizeak aurreko hamabi hilabeteetan izandako bariazio portzentajezkoa.

Lizitatuzaileek, beren eskaintzetan, beharantz aldatu ahalko dute formula hori, betiere erreferentziako elementu moduan KPIa mantenduz.

8.- ENPRESEN KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA SAILKAPENA.

1.- Obratzeko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko espainiarrek zein atzerritarrek dute kontratatze gaitasuna, betiere kontratatze debeku baten pean kausitzen ez badira eta solbentzia ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala badutela egiaztatzen badute.

2.- Administrazioak kontratatu ahalko du aldi batez xede horretarako eratzen diren enpresa-batasunekin (ez da beharrezkoa izango eskritura publikoetan formalizatzea, adjudikazioa egiten den arte). Batasun horiek solidarioki erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatuko dute haren aurrean aritzeko.

3.- Kontratatu ahal izateko, EZ da beharrezkotzat eskatzen enpresak aurretik sailkapena eskuratua izatea.

9.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

Behin-behineko bermea **52.759,95 €** -koa izango da, eta SPKLko 84. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da.

Behin-behineko bermeak kontratua adjudikatu eta berehala itzuliko zaizkie lizitatuzaileei, salbu eta adjudikazioko proposamenean sarturiko enpresarena, dagokion berme behin betikoa aurkeztu arte atxikiko baitzaio, eta adjudikazioa baino lehen proposamenak justifikaziorik gabe erretiratzen dituzten enpresenak, konfiskatu egingo baitzaizkie.

10.- PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA.

1.- Proposamenak hiru gutun-estalki bereizi eta independentetan aurkeztuko dira. Estalkiek, numeratuta eta itxita, inskripzio hau eraman beharko dute: **“LASARTE-ORIAKO UDALAREN ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEAN OSTALARITZAKO ZERBITZUAK, ZAINKETA PERTSONALEN ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUAREN ZERBITZUAK, OSASUN-ZERBITZUAK, ZERBITZU PSIKOSOSIALAK, ERABILTZAILEEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO/ETA PARTAIDETZARAKO ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOEN MANTENTZIO INTEGRALERAKO ZERBITZUAK EMATEA”**. Halaber, proposamena aurkezten duen enpresaren izena ere adierazi beharko da. Gutun-estalkien barruan, honako agiri hauek sartu beharko dira:

a) 1. zenbakia daraman estalkia:

- Dokumentazio administratiboari buruzkoa. Ondoko dokumentu hauek edukiko ditu, jatorrizkoan edota Udaleko Idazkariak edo fede-emaile publiko eskudunak behar bezala konpultsaturiko kopian edo fotokopian, eta aparteko orri batean adierazi beharko du haien zenbakizko zerrenda.

a.1) Enpresaren eta, kasua bada, haren errepresentazioaren pertsonalitate juridikoa egiaztatuko duten agiriak.

Pertsonalitatea honela egiaztatuko du:

- Pertsona juridikoak diren enpresen obratzeko gaitasuna, enpresa eratzeko eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo fundazioko aktaren bidez egiaztatuko da. Horietan agertu beharko du zein arauk erregelatzen duten enpresaren jarduera, eta, beharrezkoa denean, dagokien Erregistro Ofizialean inskribatuak egon beharko dute.
- Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak diren enpresa ez espainiarrek, obratzeko gaitasuna badutela egiaztatzeko, establituak dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan inskribatuak daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, araudiaren arabera ezartzen diren terminoetan eta aplikatzekoak zaizkien Europako Batasuneko xedapenen arabera.
- Gainerako enpresa atzerritarrek dagokien estatuan Espainiak duen Misio Diplomatiko Permanentearen txostenarekin edo enpresaren helbidea zeinen lurralde-esparruan dagoen Bulego Kontsularraren txostenarekin.
- Enpresa indibiduala bada, Nortasunaren Agiri Nazionala edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko du.
- Besteren izenean agertzen direnek edo proposamenak besteren izenean sinatzen dituztenek DNIaren kopia eta horretarako ahalorde askietsia aurkeztuko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritzako Erregistroan inskribatua agertu beharko du.

a.2) Solbentzia ekonomiko, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentuak:

Ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a.2.1) Solbentzia ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak. Enpresaren solbentzia ekonomiko eta finantzarioa modu hauetariko batean edo batzuetan akreditatu ahalko da:

Entitate finantzarioen deklarazio egokiak edo, kasua hala bada, arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruia baduelako sinestamendua.

Urteko kontuak, dagokien Erregistro Ofizialean edo Merkataritzako Erregistroan aurkeztuak. Kontuak Erregistro Ofizialean aurkeztera obligatuak ez dauden enpresek, egiaztatzeko modu alternatibo gisa, kontabilitateko liburuak aportatu ahalko dituzte, behar bezala legezkotuak.

Negozioen bolumen globalari buruzko deklarazioa eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagozkion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez ere azken hiru urtaldietakoei dagokiena, betiere enpresaren jarduerak sortu edo hasi zireneko dataren arabera dauzkanak, negozio-bolumen horren erreferentziak eskura dituen neurrian.

2. Baldin eta, arrazoi justifikatuagatik, enpresak ez badauka eskaturiko erreferentziak aurkezteko modurik, baimena emango zaio bere solbentzia ekonomikoa eta finantzarioa kontratazioko organoak egoki deritzon beste edozein dokumenturen bidez egiaztatzeko.

a.2.2) Solbentzia teknikoa egiaztatzeko dokumentuak. Enpresaren solbentzia teknikoaren justifikazioa modu hauetariko baten edo batzuen bitartez akreditatu ahalko da:

- a. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien lista, zeinetan jasoko baitu haien zenbatekoa, datak eta destinatario publikoa edo pribatua. Egindako zerbitzuak edo lanak, destinatarioa sektore publikoko entitate bat denean, organo eskudunak egindako edo oniritzia emandako ziurtagirien bidez akreditatuko dira, edo, destinatarioa subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri horren ezean, enpresaburuaren deklarazio baten bitartez. Ziurtagiri horietan aipatuko dira kontratuan parte hartuko duten teknikariak edo unitate teknikoak, enpresakoak izan edo ez; bereziki, kalitatearen kontrolaz arduratzen direnak.
- b. Instalazio teknikoen deskripzioa, enpresak kalitatea kontrolatzeko darabiltzan neurriena eta estudiorako eta ikerkuntzarako enpresak dauzkan medioena.
- c. Enpresaburuaren edo enpresako zuzendaritzako pertsonalaren titulazio akademikoak eta, bereziki, kontratua gauzatzeaz arduratuko den pertsonalarenak.
- d. Enpresak kontratua gauzatzean ingurumena kudeatzeko aplikatu ahalko dituen neurrien aipamena.
- e. Enpresak azken hiru urteotan izan duen urteko batez besteko enplegatu-kopuruari eta zuzendaritzako pertsonalaren garrantziari buruzko deklarazioa, dagozkion sinestamenduekin batera.
- f. Lanak edo zerbitzuak gauzatzeko eskueran edukiko duen makineria, materiala eta ekipo teknikoa adieraziko duen deklarazioa, zeini erantsiko baitizkio dagozkion sinestamenduak.
- g. Enpresak, behar izanez gero, kontratuaren zein parte azpikontratatzeke asmoa duen adieraztea.

Kontratazioko mahaiari dagokio determinatzea ea aurkeztutako dokumentazioak behar bezainbat justifikatzen dituen enpresaren solbentzia ekonomiko eta finantzarioa eta solbentzia teknikoa.

a.3) Erantzukizunezko deklarazio espresa, I. Eranskinean ageri den ereduaren arabera, zeinetan adieraziko baitu ez duela kontratatzeke debekurik, SPKLko 49. artikulua arabera, egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta segurantza sozialarekikoak betetzeari dagokionez, eta konpromiso formala hartzen duela, baldin eta adjudikatarioa gertatzen bada, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko.

a.4) Atzerriko enpresek beste deklarazio bat aurkeztu beharko dute, zeinetan adieraziko

baitute beren buruak Espainiako edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dituztela kontratutik zuzenean edo zeharbidez sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokie, uko egiten diotela lizitatzailari legokiokeen atzerriko barrutiko jurisdikzioari.

a.5) Enpresa bat baino gehiago lizitaziora enpresen aldi baterako batasuna eratuta aurkezten badira, batasuna osatzen duen bakoitzak akreditatu beharko du bere obratzeko gaitasuna eta solbentzia, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, aldi baterako batasunaren solbentzia tekniko determinatze aldera, metatu egingo dira batasuneko kide bakoitzaren ezaugarri akreditagarriak, betiere 1098/2001 Errege-Dekretuak 52. artikuluan ezartzen duena errespetatuz. Orobat aurkeztu beharko dute proposameneko idatzi bat, zeinetan adieraziko baitituzte sinatzen duten enpresen izenak eta zirkunstantziak, enpresa horietako bakoitzak duen partaidetza, eskubideak egikaritzeko ahalorde askietsia izango duen ordezkari edo ahalordedun bakarraren izendapena eta, adjudikatario gertatuz gero, aldi baterako batasuna formalki eratzeko eta kontratutik datozen obligazioak betetzeko konpromisoa.

a.6) Udaleko Diruzaintzan behin-behineko bermea ezarri duela egiaztatuko duen erreziboa.

a.7) Kontratisten Erregistro Ofizialak eginiko ziurtagiria aurkezteak, baldin haren eskumen-eremuak Euskadiko Komunitate Autonomoa hartzen badu, hartan jasotzen diren dokumentuak aurkeztetik dispentsatuko du.

b) 2. zenbakia daraman estalkia:

- Proposamen ekonomikoa eduki beharko du, II. Eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera. Horren barruan sartuko dira kontratuaren ondorioz sortuko diren era guztietako zergak eta gastuak. Proposamenean, aparteko kontu-sail gisa adierazi beharko da jasanarazi behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Lizitatzailak ezingo du aukera alternatiborik aurkeztu prestaziorako aurkezten duen eskaintzaren ezaugarriei dagokienez, eta betiere errespetatu egin beharko ditu ezarritako preskripzio teknikoak.

c) 3. zenbakia daraman estalkia:

- Proposamen teknikoa eduki beharko du, honako dokumentazio honek osatua:

- Egin beharreko lanak azaltzen dituen memoria. Memoria horrek definitu beharko ditu Preskripzio Teknikoen Agirian errekeritutakoaren arabera emango dituen zerbitzuak, bai halaber lehiaketako fasean ebaluatzeko proposatzen duen beste edozein hobekuntza, eta, gutxienez, ondoko atal hauek izan beharko ditu:

- a) Emango duen zerbitzuaren proiektu funtzionala, zeinetan azalduko baitu haren antolamendua, programazioa, segimendua eta informazioa.
- b) Lanpostuen koadro organikoa, zeinetan adieraziko baititu arloak, funtzioak eta zerbitzuak.
- c) Funtzioen zerrenda xehatua.
- d) Jarduteko Protokoloak, eta Praktika Onaren Eskuliburua.
- e) Proiektuan sartutako medio pertsonalak, alderdi hauei erreparatuz:
 - Pertsonalaren organigrama.

- Lanegunen taula.
- Funtzio bakoitzari esleituriko medio pertsonalak.
- Lanorduen taula.

f) Medio materialak:

- Zerbitzu-orduen taulak.
- Zerbitzuen periodizitatea.
- Zerbitzu osagarriak.

g) Enpresaren delegazioen estruktura. Arlo honetan duen esperientzia.

- Hobetzeko proposamenak, zerbitzua emateko komeni izan daitezkeela jotzen dituelako. Halakotzat joko dira kontratuaren xedeko prestazioa kalitatez nahiz kantitatez areagotzekoak, betiere eskainitako prezioan eragin ekonomikorik ez badute. Hobekuntzek ezein kasutan ez dute izango aldaeren edo alternatiben kontsiderazioa.

2.- Proposamenak sekretuak izango dira, eta, horretarako, izaera hori lizitazio publikoaren unera arte bermatuko duten bitartekoak arbitratuko dira. Proposamenak, behin entregatutakoan, ezein kontzeptugatik ere ezingo dira erretiratu.

3.- Eskaintzari eransten zaizkion dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko dira. Dokumentuen jatorrizkoak beste hizkuntzaren batean idatziak badira, bi hizkuntza horietako batera egindako itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dira.

4.- Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Banakako proposamena aurkeztu badu, ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik aurkeztu, eta ezingo da aldi baterako batasun bat baino gehiagotan agertu.

11.- AURKEZPENA ETA EPEAK.

Eskaintza aurkezteak presuposatzen du enpresak baldintzarik gabe onartzen duela Klausula Administratibo Partikularren dokumentuan eta Preskripzio Teknikoen dokumentuan ezarritako guztiaren edukia, eta, era berean, bere gain hartzen duela bai aurkeztutako datuen zehaztasunaren gaineko erantzukizuna, bai zerbitzua kontratatzeko beharrezkotzat eskatutako kondizio guztiak eta bakoitza betetzen dituelakoaren gainekoa.

Eskaintzak Udaletxeko Sarreren Erregistro Orokorrean entregatu beharko dira, lanegunetan 09:00etatik 13:00etara bitartean, lizitazioaren iragarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta **HAMABOST EGUN NATURALEKO** epean.

Baldin eta epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna egokitzen bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Proposamenak posta bidez ere bidali ahalko dira. Kasu horretan, enpresak justifikatu egin beharko du zein egunetan ezarri duen igorpena posta-bulegoan, eta eskaintza igorri izana egun berean iragarri beharko dio organo kontratatzaileari, telex, telegrama edo fax bidez. Bi baldintza horiek bete ezean, organo kontratatzaileak ez du proposamena onartuko baldin eta horretarako jarritako epea amaitu ondoren jasotzen badu. Nolanahi ere, adierazitako data horretatik hamar egun natural igaro badira proposamena jaso gabe, ezein kasutan ere ez du onartuko.

12.- KONTRATAZIOKO MAHAIA.

Kontratazeko Mahaia osatuko edo eratuko duten kideak hauek izango dira:

- Presidentea, Udaltzako izango dena, edo bere ordezkari izendatzen duen zinegotzia.
- Alkateak izendatutako bi zinegotzi.
- Lasarte-Oriako Udaleko kontu-hartzailea.
- Lasarte-Oriako Udaleko idazkaria.
- Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzu Sozialetako zuzendaria.
- Idazkari bat, mintzatzeko eskubidearekin baina bozkatzeko eskubiderik gabe, presidenteak organo kontratatzaileari atxikitako funtzionario administratiboaren artean izendatuko duena.

Mahaia balio osoz eratuko bada, beharrezkoa izango da, gutxienez, presidentearen presentzia, bi bokalena edo haien ordezkaria eta idazkariarena.

13.- KONTRATAZIOKO ORGANOA.

SPKLko bigarren Xedapen Gehigarrian xedaturikoaren arabera eta Udaltzarrak 2007-06-27ko bilkuran egindako delegazioen arabera, honako kontratazio hau egiteko eskumena Gobernu-Batzar Lokalari dagokio.

14.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

1.- Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, espediente administratiboaz arduratzen den unitateak, behar diratekeen teknikarien kolaborazioarekin, 1. estalkian sartuak dauden dokumentuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena egingo dio Kontratazioko Mahaiari, zeinek dokumentu horiek kalifikatzeri ekingo baitio.

Baldin mahaiak akats materialik ikusten badu eskaintzaileek aurkeztutako dokumentazioan, eman ahalko du, egoki baderitzo, lizitatuak akatsa zuzentzeko epe bat, gehienez ere hiru egun baliaduneko.

2.- Udalaren iragarpenen ohelean eta kontratatzailearen perfilean argitaratuko den iragarpenean zehaztutako lekuan, egunean eta orduan izango da **2. eta 3. gutun-estalkietan** sartutako proposamenak irekitzeko ekitaldia, zeinetarako bilduko baita Kontratazioko Mahaia.

Idazkariak ekitaldiaren akta idatziko du, zeinetan fidelki jasoko baitu mahaiaren deliberazioen emaitza.

3.- Ondoren, mahaiak, bere proposamena formulatu aurretik, aurkeztutako eskaintzei buruz bidezko deritzen argibideak eskatuko ditu, edo beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak. Hori egindakoan, bidezko deritzon adjudikatzeko proposamena formulatuko du eta kontratuaren adjudikazioa erabaki behar duenari zuzenduko dio, klausuletan seinalatutako irizpideen ponderazioa ere sartuta.

15.- ADJUDIKAZIOAKO IRIZPIDE OINARRIZKOAK.

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri moduan balioko duten irizpide objektiboak, garrantzi handienekotik txikienera ordenaturik, ondoko hauek dira:

15.1. Gestioko proiektua: **Gehienez ere 65 puntu.**

15.1.1.- Zerbitzuaren proiektu funtzionala. **Gehienez ere 55 puntu.** Besteak beste, honako atal hauek izango dira kontuan:

- 1) Adineko pertsona dependentziadunentzako egoitza-zerbitzuko prozesu eta arloetan proposaturiko jarduketa-eredua. **Gehienez ere 15 puntu.**
- 2) Kontratuaren xedeko zerbitzuen antolamendua, programazioa, jarraipena eta informazioa. **Gehienez ere 10 puntu.**
- 3) Jarduteko Protokoloak eta Praktika Onen Eskuliburua. **Gehienez ere 10 puntu.**
- 4) Zentroko asistentzia-ereduaren proposamena. **Gehienez ere 5 puntu.**
 - 5) Zuzendaritzaren eta pertsonal kontratatuaren organigrama eta eitura. Kontraturiko pertsonala eta zuzendaritza koordinatzeko sistema. Erabakiak artzea eta komunikatzea. **Gehienez ere 5 puntu.**
 - 6) Proiektuan sartuak dauden eta beren lanaldia instalazioetan bertan beteko duten medio pertsonalak. Haien kualifikazio profesionala, esperientzia eta bakoitzari esleituriko funtzio espezifikoen delimitazio argi eta zehatza hartuko dira aintzat. Horrez gain, egingo diren formazio-programak. **Gehienez ere 4 puntu.**
 - 7) Proiektuan sartuak dauden, instalazioetakoak bertakoak ez diren, beren lanaldia instalazioetatik kanpo beteko duten eta proiektuaren sostenguko eiturako parte diren medio pertsonalak. Haien kualifikazio profesionala, esperientzia eta bakoitzari esleituriko funtzio espezifikoen delimitazio argi eta zehatza hartuko dira aintzat. **Gehienez ere 3 puntu.**
 - 8) Proiektuari esleituriko medio materialak, administrazioak berak eskaintzen dituen bestelakoak. **Gehienez ere 2 puntu.**
 - 9) Proiektuari zeharbidez esleituriko medio material sostenguzkoak. **Gehienez ere puntu bat.**

15.1.2.- Gauzatze egokiaren bermeak eta kontrolak. **Gehienez ere 10 puntu.**

- 1) Enpresak horrek probintzian delegazioak izatea. **Gehienez ere 4 puntu.** Enpresak probintzian dituen delegazioen kopurua eta udalerraren erdiguneari buruz duten distantzia kalifikatuko dira.
- 2) Zerbitzua emateko erantzun-denbora. **Gehienez ere 3 puntu.** Preskripzio Teknikoen Agiriko 3.4. klausulan ezarritako erantzun-denboraren gutxitzea kalifikatuko da, horretarako jartzen eta egiaztatzen dituen medioen arabera.
- 3) Enpresaren kalitateko sistemak ezartzea, organizazio edo entitate eskudunak (ISO, AENOR, etab.) behar bezala egiaztatuak. **Gehienez ere 2 puntu.**
- 4) Administrazioaren eta adjudikatarioaren arteko komunikazioa. **Gehienez ere puntu bat.** Atentzio administratiboa eta pertsonala (faxes, posta elektronikoa...) kalifikatuko da, alderdi kontratatzaileen arteko komunikazioa errazteko den heinean.

15.2.- Prezioa: **Gehienez ere 16 puntu.**

Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak, berriz, interpolatu egingo dira.

15.3.- Prezioen errebisioa: **Gehienez ere 4 puntu.**

Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak, berriz, interpolatu egingo dira.

15.4.- Borondatezko hobekuntzak: **Gehienez ere 15 puntu.**

Hobetzeko proposamenak, **zerbitzua** emateko komeni izan daitezkeela jotzen dituelako. Halakotzat joko dira kontratuaren xedeko prestazioa kalitatez nahiz kantitatez areagotzekoak, betiere eskaintako prezioan eragin ekonomikorik ez badute. Hobekuntzek inoiz ere ez dute izango aldaeren edo alternatiben kontsiderazioa.

Baldintza-agirietan ezarritakoa alde batera utzi gabe, aintzat hartuko dira zerbitzua hobetzeko proposamenak, baldin eta lana hobeto egitea ekar badezakete, behar bezala justifikaturiko irizpide teknikoaren arabera. Honako alderdi hauek kalifikatuko dira:

- 1) Medio pertsonalak hobetzea: Establezimenduan bertan lan egiten duten enplegatuen kopurua hobetzea, bakoitzaren kategoria profesionala kontuan hartuz. **Gehienez ere 6 puntu.**
- 2) Lasarte-Oriako Atsobakar Zahar-Etxean euskara erabiltzeko plana izatea eta zentroaren antolamenduan eta egoitza-zerbitzuko prozesu eta arloetan inplementatzea. **Gehienez ere 6 puntu.**
- 3) Medio materialak hobetzea: Establezimenduari esleituriko ekipamenduen, ondasun mobiliarioen eta ostilamenduen kopurua, kalitatea eta motak hobetzea. **Gehienez ere puntu bat.**
- 4) Zerbitzu bakoitza emateko periodizitatea hobetzea. **Gehienez ere puntu bat.**
- 5) Proiektuari zuzenean esleituriko medio material sostenguzkoak. **Gehienez ere puntu bat.**

16.- KONTRATUAREN BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKAZIOA.

Kontratazioko organoak, aukeran, kontratua adjudikazioko irizpideen arabera onuragarriena den proposamenari adjudikatzeko ahalmena izango du, edota lehiaketa esleitu gabe deklaratzekoa, baldin eta baldintza-agiri honetan ageri diren irizpideen arabera onartzeko modukoa den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

Behin-behineko adjudikazioa gehienez ere bi hilabeteko epean xedatu beharko da, ekitaldi publikoa egiten den egunaren hurrengotik kontaktzen hasita. Adjudikazioa epe horretan xedatu ezean, enpresak eskubidea du bere proposamena erretiratzeko eta depositaturiko bermea itzul diezaioten.

Kontratazio mahaiko idazkariak dagozkion jakinarazpenak bideratzera ekingo dio SPKLko 137. artikulua adierazten duen moduan.

Behin-behineko adjudikazioa ezingo da behin betiko bihurtu hamabost egun baliodun igaro

arte, hura kontratazioko organoaren kontratugile-profilean publikatzen den egunaren hurrengotik kontaktzen hasita.

Epe horren barruan, adjudikatioak betebeharrak tributariorak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeaz den bezainbatean egunera dagoela egiaztatzen duten sinestamenduak aurkeztu beharko ditu, bai eta JEZn alta emanda egotearenak ere. Azken hori akreditatzeko, jadaneko urtaldiari dagokion alta edo JEZren azken erreziboa aurkeztuko da, zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioen erantzukizuneko deklarazioarekin batera.

17.- BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIOA.

Behin-behineko adjudikazioa behin betiko bihurtzat joko da baldin eta adjudikatioak, aipaturiko epe horretan, seinaturiko dokumentazioa aurkezten badu eta behin betiko garrantia ezartzen badu, alde batera utzirik gerta litekeela errekurso bereziko bidean errebisatzea, SPKLko 37. artikuluan xedaturikoaren arabera. Horrela gertatu ezean, Administrazioak kontratua behin-behineko adjudikatioari behin betiko itzaz ez adjudikatzeko aukera izango du, SPKLko 135.5 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

18.- BEHIN BETIKO BERMEA.

Behin betiko bermea adjudikazioaren prezioaren ehuneko 5koa izango da, eta SPKLko 84. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan ezarri ahalko da.

Behin betiko bermea ezarri izana kontratuaren behin-behineko adjudikazioa notifikatu eta hurrengo 15 egun baliodunen barruan egiaztatu beharko da. Eskakizun hori ez betetzeak, adjudikatioari lepora dakiokkeen kausagatik bada, kontratua deuseztatzea ekar dezake.

Baldin eta, kontratua modifikatzearen ondorioz, haren balio totalak gorabeheraren bat izaten badu, ezarritako bermea birdoitzeko eskatu ahalko du kontratazioko organoak, une bakoitzean indarrean dagoen kontratuaren aurrekontuarekin beharrezko proportzionaltasuna mantentzeko behar den zenbatekoan.

Bermeko epea betetakoan (20. klausulan ageri dena edo adjudikatioak eskainitakoa, hala badagokio) eta espedientean egiaztatutakoan ez dagoela ezarritako bermearen gainean betearazi behar den erantzukizunik, hura itzultzea edo kartzelatzea xedatuko da.

19.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.

1.- Administrazioak eta kontratistak dokumentu administratiboan formalizatu beharko dute lana adjudikatzeko kontratua, behin betiko adjudikazioa notifikatu eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan, eta titulu nahikoa izango da edozein erregistrotan sarbidea izateko. Hori horrela izanik ere, aipaturiko kontratu administratibo hori eskritura publiko bihurtu ahalko da, kontratistaren eskariz eta haren kontura.

2.- Kontratistak, kontratuaz gain, Klausula Administratibo Partikularren dokumentua ere sinatu beharko du, hartan txertatua ez bada, bai eta Preskripzio Teknikoen dokumentua ere.

3.- Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak zeditu ahalko zaizkio beste hirugarren bati, betiere SPKLko 209. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.- Adjudikatariorik kontratuaren parte bat gauzatzeko beste hirugarren batzuk kontratatzen baditu, SPKLko 210. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Era berean, subkontratatzei eta hornitzaileei SPKLko 211. artikuluan ezarritakoa betez pagatu beharko zaie.

20.- BERMEKO EPEA

1.- **Hiru hilabeteko** berme-epea ezartzen da, kontratua bukatzen denetik kontatzen hasita. Epe horren barruan, adjudikatariorik Udalbatzarekin kolaboratu beharko du kontratutik datozen auzi edo gorabehera guztietan eta erabiltzaileek formula ditzaketen argibide edo erreklamazioetan.

2.- Baldin eta bermeko epe horretan egiaztatzen bada lanek edo zerbitzuek ez dituztela betetzen beharrezkotzat eskatutako kondizioak, kontratista obligatua egongo da, Udalaren agindupean, hautemandako hutsuneak hark adierazitako epean konpontzera. Obligazio hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, prezioa abonatu gabe edo ordaindutakoa itzuli gabe, betiere erreklama daitezkeen indemnitazioak alde batera utzi gabe.

3.- Azkenik, horretarako izendaturiko teknikariak txosten bat egingo du, ea egindako lana eskatutako preskripzio teknikoekin bat datorren dioena, eta, baldin betetzat jotzen baditu preskripzio horiek, onarpena emateko proposatuko dio kontratazioko organoari.

4.- Bermeko epea Udalak erreparorik formalizatu gabe igaro bada, kontratista edozein erantzukizunetik salbuetsia geratuko da, salbu eta, kasua hala bada, kalteengatik beste hirugarren batzuen aurrean dukeen erantzukizun zibiletik.

21.- KONTRATUA GAUZATZEA.

Kontraturiko zerbitzua gauzatzean, zehatz-mehatz beteko dira agiri honetan eta preskripzio teknikoenean datozen estipulazioak, kontratuaren oinarri gisa balio dutenak, eta halaber beteko dira haren interpretazio teknikoan Udalak edo hark izendaturiko pertsonak kontratistari ematen dizkiokeen instrukzioak.

Adjudikatariorik berandutza inkurrituko du, Lasarte-Oriako Udalak aditzera eman beharrik gabe, baldin eta prestazioa kontratuak seinalatzen duen garaian egiten ez badu.

22.- ADJUDIKATARIOAREN BETEBEHARRAK.

1.- Adjudikatariorikaren betebeharrak orokorrak ondoko hauek izango dira:

- 1) Kontraturiko lana ezarritako epean eta kondizioetan egitea, bai eta epe partzialen barruan ere, baldin eta horrelakoak ezartzen badira elkarren segidan egiteko.
- 2) Ezein arrazoiengatik, ezta pagamenduan berandutzeagatik ere, kontratistak ezingo du eten kontratuaren konplimendua, salbu eta legez ezarritako kasuetan eta, betiere, legezko betebeharrak betez.
- 3) Kontratuaren gauzatzea kontratistaren arrisku eta menturara egingo da.
- 4) Zergak, tasak edo konpentsazioak eta kontratutik datozen gainerako gastuak adjudikatariorikaren kontura izango dira.
- 5) Enpresa obligatua dago zuzenbide laboralaren, Segurantzaren Sozialaren eta Laneko Segurtasunaren eta Higienaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzera, eta enpresak betebeharrak horiek ez betetzeak ez du Administrazioarentzat inolako

erantzukizunik inplikatu. Orobat bete beharko ditu kontratua gauzatzen duen bitartean promulga daitezkeenak ere.

- 6) Adjudikataria obligatua egongo da, nahitaez subrogatu beharreko pertsonalari dagokionez, aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan finkaturiko baldintzak betetzera.
- 7) Adjudikataria orobat egongo da obligatua adjudikazioaren bertutez egikaritzen dituen jardueren ondorioz dagozkion obligazio fiskalak betetzera.
- 8) Baldin eta hamabi hilabeteko aldia igaro bada APKLTBko 20.f) artikuluko obligazio tributarioak eta Segurantza Sozialekoak konplitzeari buruzko ziurtagiri positiboak egin ziren egunetik, adjudikataria berritu egin beharko ditu eta egiten duen hurrengo fakturari erantsi beharko dizkio, haiek gabe ez baitaio fakturarik pagatuko.
Nolanahi ere, espresuki autorizatuko du Lasarte-Oriako Udala Foru Aldundiaren Zerga Administrazioa eta Segurantza Sozialaren Diruzaintza Orokorrera joateko eta informazio tributarioa eta soziorabala eskuratzeko, arren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 43.1.e) artikulua eta Langileen Estatutu Orokorraren 42. artikulua beharresten dituzten xedek konpli daitezzen.
- 9) Adjudikazioaren erantzukizun izango dira haren esku jarritako ondasunetan Udalari bihurtu aurretik gertatutako galerak, matxurak edo kalteak.
- 10) Haren erantzukizuna izango da garatzen dituen lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai halaber kontratua gauzatzean izandako omisio, akats, metodo desegoki edo konklusio okerrenatik Udalari edo beste hirugarren batzuei segitzen zaizkien ondorioak. Enpresaren obligazioa izango da kontrataturiko lanaren betetzeak eskatzen dituen operazioen ondorioz gertatzen diren kalte-galeren ordaina pagatzea.
- 11) Zerbitzua emateko beharrezko diratekeen lizentzia edo baimen administratibo guztiak eskuratzeko adjudikazioaren kontura izango da beti, eta bere izenean eskatu beharko ditu.
- 12) Enpresa adjudikarioek, izaera pertsonaleko datuen tratamenduz den bezainbatean, kasu guztietan errespetatu beharko dute Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organiko abenduaren 13koak (298. BOE, 1999ko abenduaren 14koa) agintzen duena.
Izatekotan ere, enpresa adjudikarioek honako adjudikazio honen xedeko lana garatzeko behar dituzten datu pertsonalak bakarrik informatizatu edo artxibatatu dituzte. Horren harira, kontratuaren indarraldia amaitzen denean, entitate adjudikarioak Udalari entregatuko dizkio izaera pertsonaleko datuak dauzkaten artxibo guztiak, 15/1999 Lege Organiko abenduaren 13koa behar bezala konplizte aldera.
- 13) Adjudikarioak gehigarriko pagamendurako eskubiderik gabe eman beharko ditu kontratua egokiro garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak, hala nola laneko edo informazioko bileretara joatea. Betebehar horrek bermeko epea amaitzen den arte iraungo du.
- 14) Adjudikazioaren erantzukizuna izango da emandako zerbitzuen kalitatea, zeina doitu beharko baitie Udalak eskatutako eta berak eskainitako ezaugarriei. Hautematen diren akatsak Administrazioaren agindu baten edo hark ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean, orduan bakarrik geratuko da erantzukizunetik salbuetsia.
Bermeko epeak dirauen bitartean, kontratistak eskubidea izango du emandako zerbitzuen aplikazioaren berri jakiteko eta entzuna izateko.
- 15) Greba edo ugazaben itxiera gertatzen bada, kontratistak berehala jakinarazi beharko dio Udalari horren hasieraren berri, eta zerbitzua egokiro emateko behar diren bitarteko guztiak jarriko ditu Udalaren esku. Zerbitzuaren prestazioa mantentzeagatik sortzen diren gastuak enpresa adjudikarioaren kontura izango dira.
- 16) Adjudikarioak ezingo ditu ez zeditu ez transferitu kontratutik sortzen diratekeen eskubideak, Udalaren baimen espresarekin ez bada, eta, betiere, SPKLko 209, 210 eta 211. artikuluetan ezarritakoa bete beharko du.

- 17) Baldin eta, kausa justifikaturik gabe, Administrazioa berandutzan erortzen bada kontrataturiko lanaren onarpenean, enpresak denuntziatu egin beharko du eraginik izango badu.
- 18) Adjudikatariora obligatua dago, halaber, baldintza-agiri hauetan eta aplikatzekoa zaion legezazko ezarritako gainerako xedapenak betetzera.

2.- Gainera, adjudikatariora **obligatua** egongo da **erantzukizun zibileko poliza** bat kontratatuzera, zenbatekoz 600.000,00 eurokoa, Lasarte-Oriako Udalarekin kontratatutako zerbitzuak ematek sorturiko arriskuak aseguratuko dituena, eta Udalari poliza horren kopia bat eman beharko dio kontratua sinatzerakoan, bai eta, ondoren, kontzeptu horrengatik urtero ordaindutako primen erreziboak kopiak ere.

Erantzukizun zibileko poliza horrek aseguratuko ditu kontrataturiko zerbitzuak ematean Udalari eta beste hirugarren batzuei egin dakizkiekeen kalteak.

23.- SANTZIOEN ERREGIMENA.

1.- Baldin eta kontratistak, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, ez-betetze larri edo oso larriren batean inkurritu badu, Udalak, aukeran, edo kontratua deuseztatu ahalko du, edo honako sartzio hauetakoren bat ezarri ahalko dio:

- Ez-betetze larriagatik, 600,00 €-tik 1.500,00 €-ra bitarteko sartzio ekonomikoa.
- Ez-betetze oso larriagatik, 1.501,00 €-tik 3.000,00 €-ra bitarteko sartzio ekonomikoa.

2.- Baldin eta kontratistak, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, eta betiere egotz dakiokkeen egitatea ez-betetze larria edo oso larria ez delarik, ez badu konplitzen kontratuan definitutako prestazioetakoren baten exekuzio partziala, ez badu obeditzen Udalaren aginduren bat, erabiltzen baditu proiektuan, baldintza-agirietan eta bere eskaintzan aurreikusitako bestelako lan-sistemak, elementuak, materialak, makinak edo pertsonala edota ez badu konplitzen aurreko klausulan definituriko obligazioetakoren bat, orduan, ez da beharrezkoa izango Udalak alde aurretik jakinaraztea, zeinek penaltateak ezarri ahalko baitizkio, segidan zehazten denaren arabera:

- Lehenbiziko ez-betetzeagatik, 60,00 €-ko penaltatea.
- Bigarren ez-betetzeagatik, 150,00 €-ko penaltatea
- Hirugarren ez-betetzeagatik, 300,00 €-ko penaltatea.
- Laugarren eta hurrengo ez-betetzeengatik, 600,00 €-ko penaltatea.
- Baldin eta 3., 4. edo gehiagogarren ez-betetzea bada, Udalak aukeran erabaki ahalko du, nahiz gorago adierazitako penaltateak ezartzea, nahiz kontratua deuseztatzea jotzea.

3.- Edozein kasutan ere, kontratua deuseztatzeak berekin ekarriko du bermea konfiskatzea eta, kasua hala bada, Administrazioari kalte-ordaina pagatzeko obligazioa, SPKLko 196.etik 198.era bitarteko artikuluetan ezarritako baldintzetan.

4.- Ustezko ez-betetzearen kariatzeko espedientea tramitatzean, audientzia emango zaio kontratistari, arren eta alegazioak formula ahal ditzan bost egun balioduneko epearen barruan, eta kontratazioeko organoak ebatziko du, alde aurretik beharrezko txostenak eginda.

24.- KONTRATUA BETETZEA, ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA.

Lasarte-Oriako Udalari dagokio kontratua nola gauzatzen den zuzenean eta etengabeki zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea, eta behar diren instrukzioak eman ahalko ditu, hitzarturikoa

fidelki konpli dadin.

Kontratazioko organoak, lanaren zuzendari izateko, Lasarte-Oriako Udalaren Zerbitzu Sozialetako zinegotzia izendatzen du, edo haren ordezkari pertsona. Hark gainbegiratuko du lana nola gauzatzen den, konprobatuz ezen Klausula Administratibo Partikularren Agirian eta Preskripzio Teknikoenean ezarritakoarekin bat etorritik betetzen dela, eta hark helaraziko dizkio kontratistari kontratazioko organoaren aginduak eta instrukzioak. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko funtzio hori berori beste edozein pertsonari esleitu ahal izatea.

Adjudikatarioa obligatua geldituko da, kontratatutako lanen motari eta haiek gauzatzeko ordenari, moduari eta denborari dagokienez, Udaletik jakinarazten dizkioketen xedapen guzti-guztiak betetzera.

25.- LASARTE-ORIAKO UDALAREN PRERROGATIBAK.

Lasarte-Oriako Udalaren prerrogatibak dira kontratua interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztea, interes publikoagatik hura modifikatzea, haren deuseztapena erabakitzea eta horren ondorioak finkatzea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeko mugen barruan eta han ezarritako baldintzei eta efektuei loturik.

Subsidiarioki gauzatzeko aukera izango da baldin eta kontratistak, nahitaez norberak egin beharrekoa ez delako, hark ez beste subjektu batek bete dezakeen obligazioen bat konplitzen ez badu. Kasu horretan, Udalak egin ahalko ditu, kontratistaren kontura, konplitu gabeko obligazioak, bere buruz edo erabakitzen dituen beste batzuen bidez.

26.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA.

SPKLko 206.etik 208.ra bitarteko artikuluetan iragarritako deuseztatzeko kausetakoren batengatik eta ondorioekin iraugi ahalko da kontratua.

27.- ERREGIMEN JURIDIKOA.

Kontratu administratiboa ondoko hauek arautuko dute:

- 1) Baldintza-agiri honetan eta dokumentazio teknikoan jasotako klausulek.
- 2) Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak.
- 3) 1098/2001 Errege-Dekretu Legislatibo uztailaren 5ekoak, zeinen bidez onesten baita administrazio publikoen kontratuen legearen erregelamendu orokorra, betiere aurrekoaren aurka ez doanean.
- 4) Kontratazio administratiboa erregulatzen duen eta aplikatzekoa zaion beste edozein xedapenek.
- 5) Osagarri moduan, arau zibil pribatuak aplikatuko dira.

28.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratuen interpretazioaren, modifikazioaren, suntsitzearen eta efektuen gainean sortutako auziak Kontratazioko Organoak ebatziko ditu, zeinen ebazpenek bide administratiboa agortuko baitute eta bide kontentzioso administratiboa irekiko, jurisdikzio horren legearen arabera.

29.-KONTRATISTAREN PROFILA.

<http://www.lasarte-oria.org/contratacion>

I. ERANSKINA
DEKLARAZIOAREN EREDUA

(Pertsona naturala edo fisikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, deklaratu du Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahalmenduta dagoela, zeren, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez baitago sarturik Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

(Lekua, data eta sinadura)

(Sozietatea edo pertsona juridikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkatzeko baitu ___ enpresa, IFZ ___ zenbakikoa eta egoitza soziala ___ helbidean duena, deklaratu du bai bera bai ordezkatzeko duen enpresa Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahalmenduta daudela, ezen eta, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez daude sarturik Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

(Lekua, data eta sinadura)

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, NANA ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkaten baitu ___ enpresa (IFZ: ___; telefonoa: ___; faxa: ___),

DEKLARATZEN DU:

Lehenik.- Eskaintza irmoa aurkezten duela **LASARTE-ORIAKO UDALAREN ATSOBAKAR ZAHAR-ETXEKO OSTALARITZAKO ZERBITZUAK, ZAINKETA PERTSONALEN ETA BANAKAKO ARRETA PERTSONALIZATUAREN ZERBITZUAK, OSASUN-ZERBITZUAK, ZERBITZU PSIKOSOSIALAK, ERABILTZAILAILEEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO/ATAKETA ETA PARTAIDETZARAKO ZERBITZUAK ETA MANTENTZIO INTEGRALERAKO ZERBITZUAK** adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko.

Bigarrenik.- Ezagutzen dituela Klausula Administratibo Partikularren eta Preskripzio Teknikoen baldintza-agiriak, eta espresuki asumitzen dituela eta osoki men egiten diela.

Hirugarrenik.- Errepresentatzen duen enpresak gaitasun eta medio nahikoak dituela kontratua aipaturiko baldintza-agirian eta aportatzen duen aurrekontuan ezarritako kondizioetan bete ahal izateko.

Laugarrenik.- Lasarte-Oriako Udala espresuki autorizatzen duela Foru Aldundiaren Zerga Administrazioa eta Segurantzaren Sozialaren Diruzaintza Orokorrean joateko eta errepresentatzen duen enpresaren informazio tributarioa eta soziolaborala eskuratzeko, arren eta konpli daitezkeen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 43.1.e) artikulua eta Langileen Estatutu Orokorren 42. artikulua beharresten dituzten xedeak.

Bosgarrenik.- Kontratua Klausula Administratibo Partikularren baldintza-agirian ezarritakoari eta eskaintako kondizioei loturik betetzera konprometitzen dela, zenbateko hauetan:

Ostalaritzako zerbitzuen, zainketa pertsonalen eta banakako arreta pertsonalizatuaren zerbitzuen, osasun-zerbitzuen, zerbitzu psikosozialen, erabiltzaileen eta familien informazio/ataketa/ataketa eta partaidetzarako zerbitzuen kasuetan ___ euro (BEZik gabeko prezioa) eta ___ euro, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak (letraz eta zenbakiz).

Instalazioen mantentzio integralerako zerbitzuaren kasuan, ___ euro (BEZik gabeko prezioa) eta ___ euro, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak (letraz eta zenbakiz).

(Lekua, data eta sinadura).